

Plaza > Kultura

Lekuak eta lekukoak (eta VI) → Mikel Laboa eta Buenavista eta Munto-Berri ostatuak

Gorka Erostarbe Donostia

Lanbroak ezkutatu ala ez, maite zituen bere bazterrak Mikel Laboak. Azken unera arte. Hil aurreko egunetan ere —2008ko abenduaren 1ean zendu zen— Igeldoko Buenavista jatetxean (Donostia) izan zen, ia egunero egin ohi zuen moduan. «Sari bat jasotzekotan zen Gipuzkoako Diputazioaren eskutik. Etorritako azken aldian zera esan zigun: «Ez dakit iritsiko naizen jasotzera». Angel Irizar Buenavista jatetxe-ko nagusi izandakoak (erretiroa hartuta dago) ondo asko oroitzen ditu «Mikelekin» bizi izandako azken une horiek. Ez horiek bakarrik, hala ere. Aspaldiko adiskideak baitziren.

Laboaren beste betiko ostatu-tako bat Munto izan zen, Aiete auzoan. Etxetik oso gertu zuen, eta han etxean bezala sentitzen ziren hala Laboa bera nola haren familiakoak. Han ospatu ohi zituzten ospatu beharrekoak. Baina hura aspaldi itxi zuten, eta azken urteetan etxe ondoko beste taberna batean eman zituen ordu asko Laboak, Munto-Berrin, batez ere osasun arazoek Antigua auzoraino jaistea gero eta lan nekezagoa bihurtu ziotenez geroztik.

Duela hamar bat urte ezagutu zuen Laboa Iñaki Garciak, Munto-Berri tabernako jabeak, taberna zabaldu zuenean, lehengo Munto taberna hartu zuen etxetik oso gertu. Hark ere oso gertutik eta «barrenetik» sentitu zuen Laboaren heriotza. «Oso gertuko ahaide bat hilko balitzait bezala sentitu nintzen. Maitasun handia nion. Oraindik ere hunkitu egiten naiz harekin akordatzean». Begiak gorritu eta lanbrotu zaizkio tabernariari.

Beste leku asko hauta zitezkeen Laboa oroitzeko, ezaguna da haietako batzuekin izan zuen atxikimendu estua: Donostiako Parte Zaharra —han jaio zen, 1934ko ekainaren 15ean—, San Juan eta Iñigo kaleak batik bat; Lekeitio eta Gardata; edo Pasai Donibane, Gernika, Baztan, Orreaga, Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat bazter... Buenavista eta Munto-Berri ostatuak bi leku baino ez dira hauta zitezkeen askoren artean, bi adibide txiki besterik ez. Inondik ere ez Laboaren bi lekuri esanguratsuenak edo enblematikoenak. Baina bietan aurki daitezke hark utzitako arrasto sakonak eta ederrak.

Maite zituen bi ostatu horiek Laboak. Maite zuen Buenavista eta maite zuen Munto-Berri. Ostatu haiek eta haien jabeek bera maite zuten bezala. Hunkitzen dira Laboa eta harekin bizi izandakoak gogoan hartzean. Malkoak ateratzen zaizkie batzuetan,

Igeldoko Buenavista jatetxeak eta Aieteko Munto-Berri tabernak, biak Donostian, babes eta lagunarterako ostatu izan zituen urte luzez Mikel Laboak. Angel Irizarrek eta Iñaki Garciak Laboaren alderdirik hurbilenekoak dakartzate gogora.

Akazia, akatisia eta beste zenbait gutizia



Igeldoko Buenavista jatetxearen terrazako akazia. GARI GARIALDE / ARGAZKI PRESS

